

# Emakume pilotariak: gure taldea, gure ordua

Uxue Fernandez-Lasa\*, Oidui Usabiaga Arruabarrena, Julen Castellano Paulis

\*Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

Kirol eta jarduera fisikoetan aritzeak sare sozialak ehundu, ugaritu eta/edo indartzen laguntzen du. Erlazio horiek, gainera, garrantzitsuak dira emakumeen parte-hartzean. Artikulu honetan, etnografia-lana gauzatuz, aisialdiko emakumezko pilotari helduen testuinguruko erlazioak aztertu dira. Komunitate- zein talde-izaeraren itzal luzea azalera da emaitzetan, jardueraren muinean baitaude pilotarien arteko harremanen garrantzia eta beharra. Gutar izatearen sentimendua eta elkarrekiko loturen estutasuna eta irmotasuna ere nabarmendu dira, kantxan nahiz bertatik kanpoko jardueretan. Pilotarientzat talde-sentimenduak pisu handia du, jarduerarekiko zein kideekiko atxikimendura bideratzen baitute euren aisialdiko pilotako jarduna.

GAKO-HITZAK: Emakumeak · Komunitatea · Euskal pilota · Aisialdia.

## Female pelota players. Our group, our hour

Participation in sports and physical activity promotes and enhances social networks. Furthermore, these relationships are important for women to participate. In this report we present the main points that emerged from an ethnographic study of the social relationships that playing Basque pelota can provide. The study was carried out on a sample of adult women, players in the area of recreation. The results suggest that the sense of community and team membership are the most important aspects for players. The sense of belonging to their group is the fundamental reason why they practise this sport. Female pelotaris share the desire to relate to each other both on the field and off.

KEY WORDS: Women · Community · Basque pelota · Leisure.

*Jasotze data:* 2014-05-08    *Onartze data:* 2014-06-12

## 1. Sarrera

Euskal Herriko auzo eta herri bakoitzean aurki dezakegu pilotaleku, eliz atari edo pilotarekin haren aurka aritzeko moduko pareta edo arkuperen bat. Gainera, askotan haur nahiz heldu taldeak ikus ditzakegu bertan jolasean, neska zein mutil, irribarrea ezpainetan eta giroa lagun.

Kirol-federazioak ere sustapenaren ildo txertatzen eta jorratzen hasi dira azken urteotan, jarduleen beharrak aintzat hartu eta haien proiektuak eta bide-orria egokituz. Adibidez, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) egokitzapenak burutu ditu gizarteak eskatzen dituen arloei erantzuteko, ongi pasatzea eta disfrutatzea xede duen aisialdiko kirolari dagokion atala abian jarrita (Usabiaga, 2006). Ildo horretan, emakumeen artean pilota sustatzeko GEPFk abian duen *Emakumea Pilotari* egitasmoaren baitan, 2005-2006 ikasturteetik aurrera aisialdiko paleta-ikastaroak daude martxan hainbat herritan. Ugari dira kirol honetarako urratsa emaniko emakumeak. Saioak kirol-lehiaketa federatutik at jardun nahi duten 16 urtetik gorakoentzat dira, lehiaketa eta garaikurren gurpiletik kanpo aritu nahi dutenentzat. Gozatu, ongi pasa eta frontoiko jarduera modu ludikoan egin nahi dutenak dira ikastaro horien hartzaileak, kirolerako prestaketa espezifikoa eta konpromiso-maila altuak bazterrean utzita.

Euskal pilota izaera maskulinoa duten kirol legez izendaturikoen barruan garatzen den jarduera da (Etxebeste, 2012; Fernandez-Lasa, Usabiaga eta Castellano, 2013; González, 2005) eta parte-hartze nahiz sozializazio-prozesuek berariazko ezaugarriak dituzte. Euskal pilotan aurrez egindako ikerlan batzuetan nabarmendu da lagun-giroa eta gertutasuna lagungarri dela jarduleentzat, besteak beste, pilotan ibilbide bat osatu ahal izateko eta jarduera erakargarri bihurtzeko (Fernandez-Lasa, 2011; Fernandez-Lasa eta Usabiaga, 2012). Esku-pilotaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan ere aipatzen dute kideen arteko trukea talde-izaera handitzeko bide gisa (Egibar *et al.*, 2007).

## 2. Harreman-sareen eragina jarduera fisiko eta kiroletan

Ikuspegi teoriko sendoa du gaur egun pentsatzeak jarduera fisiko eta kiroletan besteekin parte hartzeak eragina duela pertsonen arteko erlazioetan (Hellsion, 2011) eta sozializazio-prozesuetan laguntzen duela (Ramírez, Vinaccia eta Suárez, 2004). Kirol eta jarduera fisikoetan arituz gero, lagunarte eta harreman-sare berriak sortzeko aukera gara liteke. Gainera, lehenagokoak sendotzea ere eragin dezake, erlazio-distantziak eta elkarrekiko trukeak estutzeari esker. Erlazio horiek garrantzitsuak dira emakumeen jarduera fisiko eta kiroletako parte-hartzean. Talde-kiroletan talde-sentimendua asko indartzen da komunitateak eraikitzearen poderioz (Bidonde, Goodwin eta Drinkwater, 2009; Lim, Warner, Dixon, Berg, Kim eta Newhouse-Bailey, 2011; Walseth, 2008). Adibidez, Theberge (1995), izotz-hockeyaren gaineko lan batean, dio taldea kezka eta interesak partekatzearen ondorioz osatzen dela, kideekin konprometitu eta gainerako emakumeekin elkartzat identitate, pasio eta bizipen komun bidez. Talde bateko kide sentitzea eta komunitatean sartzea areagotu egiten dira (Kinsel, 2005), zeinak babeseta eta erosotasuna eragiten dituen

taldeko kide sentitzean. Laguntza eman eta bizitza gainerakoekin partekatzeak pertsonengan sentimendu baikorrak eragiteaz gain, taldekideengan konfiantza sortu eta talde- zein familia-sentimenduak garatzen laguntzen du, harreman-sareak sortzen amaitzeko (Migliaccio eta Berg, 2007; Roster, 2007). Elkarrekotasun orokortua (*generalized reciprocity*) garatzen da, «gu» kolektibo bat sortu eta elkarri babes soziala eskaintzen zaio helburu, arau, balio eta interesak partekatzean batuta mantentzeko, trukean ezer ere espero gabe (Walseth, 2008). Gainera, emakumeek euren esperientziak, hartu-emanen indarra eta sakontasuna, munduan emakume izanez egoteko nahia elkarrekin banatzen dituzte, *affidamento* erlazio esanguratsuak sortuz eta ezberdintasunak errespetatuz (Martín, 2006).

Literatura zientifikoan pilotarien eta haien arteko erlazio sozialen gaineko berriazko ikerketarik aurkitu ez badugu ere, pentsa liteke aurrez aipaturiko hainbat egoera gerta litezkeela kirol tradizional honetan. Hala ere, euskal pilotan, egituraz, emakumeak bikotekako norgehiagoketan, aurrez aurre eta elkar garaitzeko asmoz, aritzen dira (Egibar *et al.*, 2007). Ez da beste hainbat talde-kiroletan bezain nabarmena, berez, kideen arteko kolaborazio-harremana kantxa barruko partidetan zehar, taldea bik baino ez baitute osatzen. Hori horrela izanik, honako galdera hauek otu zaizkigu: nolako harremanak garatzen dira emakume pilotarien artean? Lehiakortasunak mugatzen al ditu elkarrekiko trukeak? Taldeko jarduera izatera heltzen al da? Erlazio-sarerik osatzen al da elkarrekiko trukeen joanean? Zenbateko eta nolako eragina dute jarduleengan?

### 3. Metodologia.

Galdera horiei erantzun nahirik, aisialdian, euskal pilotan diharduten emakumeak aztertu genituen, lehenik, etnografia eginaz, eta ondotik, lanetik eratorritako datuak etnologiarenekin bahetik pasatuz, zeren emakume pilotaria, nabarmen, generoaren alderdi sozial, psikologiko, biologiko eta kulturalari atxikirik ageri baita.

Eta, orduan, harreman-sareen atala jorratu dugu. Ikerlana Gipuzkoan egin da eta aisialdiarekin lotutako jarduera fisikoko egitarau batean parte hartzen duten emakume helduak izan ditu aztergai, zehazki, GEPFk *Emakumea Pilotari* egitasmoaren barnean antolatutako aisialdiko euskal pilota jardueretako partaideak. Artikulu hau entrenamenduetako behaketa parte-hartzaile eta elkarrizketen bidez lorturiko informazioan oinarrituta osatu da.

#### 3.1. Behaketa parte-hartzailea

Behaketa parte-hartzailea, giza taldeen bizitza soziala aztertzeko teknikarik erabiliena dena (Taylor eta Bogdan, 2000), izan da etnografia honetako datu-bilketaren bizkarrezurra. Behaketaren bitartez aisialdiko emakume taldeen eta haien jardueren deskribapen zabalak lortzeko bidea izan dugu, eta, modu horretan, jende talde baten joerak ulertu ditugu (Krane eta Baird, 2005).

Behaketa parte-hartzailearen aldia 2011ko irailetik 2012ko ekainera bitartean burutu zuen ikertzaile nagusiak. Guztira 83 entrenamendu-saio behatu zituen, bakoitza bi ordu ingurukoa. Aurretik eta ondoren kideen artean sorturiko hizketaldiek ordu-erdi

inguruko tartea hartu ohi zuten zenbaitetan, zeina saioaren ordu eta erdiari erantsi behar zaion. Bertan landa-oharrak bildu (Taylor eta Bogdan, 2000; Woods, 1989) eta landa-eguneroko bat ere osatu zen (Guasch, 1997; Hammersley eta Atkinson, 2007).

Behaketa-lanean hainbat urrats eman behar dira. Lehena agertokiak hautatzea da (Adler eta Adler, 1994) eta horretarako aniztasuna aintzat hartzen saiatu ginen. Behaketa-lana hiru udalerritan burutu zen, *Emakumea Pilotari* egitasmoko hiru talde zehatzetan. Hainbat irizpideren arabera hautatu ziren agertokiak: a) herriaren ezaugarriak, biztanle kopurua, b) paleta-taldearen antzinasuna, c) saioen ordu eta egunak, eta, azkenik, d) pilotarien ikertzaile nagusiarekiko ezaugarriak eta lotura-maila. Behaketa-laneko partaideei dagokienez, paleta-ikastaroetako 22 eta 60 urte bitarteko 26 emakume pilotarik eta bi entrenatzailek parte hartu zuten. Badituzte ezaugarri komun batzuk: emakume helduak izatea eta herri batean bizi izatea. Heterogeneotasuna adierazten duten ezaugarriak ere badituzte, ordea, talde-kiroletan arituak dira zenbait, beste zenbait baita euskal pilotako jardueretan ere, edo zenbait amak dira.

Saioetarako baimena negoziatu genuen GEPFko arduradunekin eta zegokien udal-teknikariekin, eurak baitira ikastaroen antolatzaile nagusiak. Paleta-saioetako gidariekin bildu eta gure asmoen berri ere agertu genien. Behatzaileak lotura zuzena du guztiarekin, aurrez hiru urtean emakume pilotariekin lanean aritu baitzen teknikari moduan, baita entrenatzaile-lanetan ere. Gainera, pilotan jokatzeko denboraldi eman zituen, beste horrenbeste egitasmoko komunikazio-arduradun zereginetan, eta oraindik ere emakumeen pilotarekin lotura estua du. Horrek parte-hartzaileek elkar ulertzea eta *rapporta* lortzea erraztu zuen (Krane eta Baird, 2005; Taylor eta Bogdan, 2000); era berean saioetan behaketa egiteko paletari-rola betetzeko beste emakumeekin batera kantxan aritzea ere garrantzizkoa eta lagungarria izan zen.

Ikertzaile nagusiak rol aktiboa izan zuen etnografia-lanean eta pilotari jarduteak ikergai ziren emakumeenganako gertutasuna erraztu zuen. Behaketa parte-hartzaile eta parte-hartzaile behatzailearen artean kokatu zen lan-ildoan, Wolcott (1973) tipologiaren arabera. Horregatik, parte-hartzaileei ikertzailearen rola eta asmo orokorra zein zen agertu zitzaizkien. Atezain eta funtsezko informatzaileen hautaketa (Guasch, 1997; Woods, 1989) ere baliatu genuen hartu-eman sortzeko, hasieratik emakumeen onarpena lortuz agertokietan eta gutxika-gutxika sakontasunean eta informazioa biltzeko aukeretan aurrerapausoak emanez, taldeko beste bat gehiago izatea lortu arte.

Behaketa-aldian bilduriko informazioaren osagarri, zuzenean saioekin loturiko dokumentuak ere eskuratu genituen, besteak beste, ikasturteko ikastaro guztien eskaintza, ikastaroak iragartzeko kartelak, *Emakumea Pilotari* eguneko egitaraua eta Emakumearen Batzordeko 2004 eta 2012 arteko aktak.

### 3.2. Elkarrizketak

Behaketa parte-hartzailearen bidez jasoriko informazioa osatzeko elkarrizketak, formalak eta informalak, burutu ziren landa-lanean zehar. Elkarrizketa etnografikoak

baliagarriak izan ziren behatzaile-rolan jasoriko informazioan sakontzeko eta genituen uste edo zalantza batzuen gaineko iritzi zehatz eta sakonagoak lortzeko (Krane eta Baird, 2005; Woods, 1989), bai eta behatze-lanaren osagarri ere. Aldi berean, datuen triangulaziorako bide ere izan ziren.

Solasaldi formalak erdi egituratuak izan ziren eta elkarrizketak garatzeko gidoi bat erabili zen, bertan elkarrizketetan erabiltzeko gai nagusiak bilduz (Kvale, 2007). Elkarrizketa horiek malgutasunaren eta zehaztasunaren arteko konbinazioan oinarritzen dira, elkarrizketa irekia sortzen da, norabide anitzekoa, eta aurrez ikertzaileak atzeman ez duen informazioa eskuratzeari ahalbidetzen du (Krane eta Baird, 2005), nahiz eta informatzaileak ezarri ohi duen hein handi batean solasaldien egitura, zertaz diharduen (Woods, 1989).

Bederatzi pilotari eta bi entrenatzaile elkarrizketatu ziren, aurrez haiekin behaketa eta harremanetan zazpi hilabete eman ondoren. Lehenengo kasuan, informatzaileak hautatzeko arrazoiek haien esanguragarritasuna (Patton, 1990) izan zuten oinarrian: pilotan zeramaten denbora, pilotarekiko atxikimendu-maila, lehiakortasun-maila, eta, paleta-taldeari erreparatu, talde bakoitzetik bi hautatu ziren. Elkarrizketak 30 eta 60 minutu artekoak izan ziren eta erregistratu, transkribatu eta berriro ere elkarrizketatuei bidali zitzaizkien euren onespina emateko. Aurrez, baimen informatua eskatu zitzaizen kirolariei, Kvalek (2007) gomendatu legez.

Elkarrizketa informalak edo zeharkakoak, aldiz, ikasturteko saio guztietan zehar burutu ziren ikertzailearen eta partaideen artean. Gainera, frontoiko elkarrekintza saioetatik kanpoko egoeretara ere zabaldu zen ikasturtearen amaiera-aldera, adibidez, ikasturte-amaierako otorduetan, euren kabuz antolatutako paleta-saio gehigarrietan edo trago bat hartzeko hitzorduen bidez. Elkarrizketa informal hauek oso lagungarriak dira une zehatzetan jasoriko informazioa aberastu eta kideekiko *rapporta* eskuratzeko (Krane eta Baird, 2005).

### 3.3. Datuen analisia

Datuen azterketa-fasea, haien bilketarekin batera gauzatzen da, ez berezita (Dey, 1993); teknika ezberdinen eta ikerketako faseen arteko konbinazioa maila guztietan gertatzen da (Woods, 1989). Behaketa, elkarrizketa eta dokumentuetan jasotako datuak kategorizatu egiten dira, analisi-prozesuan zehar sortzen diren gako-gaiak identifikatzeko (Martos, Devís eta Sparkes, 2009).

Datuetatik eratorritako txostenak ikertzaile taldeak eta ikergai izandako aisialdiko taldeetako paletarietako hiruk aztertu zituzten. Modu horretan, kide bakoitzaren iritzi kritikoa eta egiaztapena sustatzen dira, sinesgarritasun-irizpideak bermatuz (Lincoln eta Guba, 1985; Sparkes eta Partington, 2003).

Analisi-prozesuak hiru fase izan zituen: hasierako analisia edo deskubrimendua, kategorizazio eta kodifikazioa, eta, interpretazio bidez, lotura eta kontzeptuak sortzea (Friese, 2012). Horretarako ATLAS.ti 6.2 softwarea erabili genuen. Transkripzioak, kodifikazio inductiboa, *bottom-up* forman (Navarro, 2007), eta ondorengo analisiak datuen analisi kualitatiborako programaren bidez egin dira.

### 3.4. Etika eta anonimotasuna

Ikerketa-proiektu honek Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Irakas-kuntzaren eta Ikerketen Etikarako Unibertsitate Batzordearen onespina eta ziurtagiria jaso ditu. Batzorde horrek ere egin dio jarraipena, etikako irizpideak bete direla frogatuz eta berme oro emanez.

Ikerketa honetan agertzen diren izenak ez dira errealak, izengoitiak baizik. Partehartzaile guztien izenak, ikertzaile nagusiarenak eta pertsonaia publikoenak salbu, aldatu ditugu anonimizazio-prozesuaren bidez, segurtasuna eta izaera anonimoa bermatu eta indartzeko (Nespor, 2000).

## 4. Emaitzak

Ikerlan honetan, kirol-jardunaz harago, datuek hauxe nabarmendu dute: harreman sozialek garrantzia handia dute emakume pilotarientzat, jardueraren muinean daude, eta, horrek, talde-sentimendua eratzen laguntzen du. Horrekin loturik, komunitatearen eraikuntza eta horrekiko atxikimendua ere nabarmendu beharrekoen artean daude.

### 4.1. Gure taldea, gure ordua

Paleta-saioetan pilotarien kolektibotasunak eta komunitateak duten presentzia ez da nolana hikoia, taldean jarduteak eta hori norbere sentimenduen artean txertatzeak sarritan atxikimendu jarraitu eta irmoa eragiten dielako pilotariei jarduerarekiko. Ildo berean, hori bezain azpimarragarria da pilotako jarduera horretan norekin aritzea, bereziki taldekide izan eta harreman sendoagoak dituztenekin aritzea, benetan garrantzitsua dela ia emakume gehienentzat. Pilotalekua lagun talde horren bilgune bihurtzen da, elkarrekiko distantziak murrizten dituzten heinean kasu asko eta askotan.

Talde-izaeraren garapena gertatzen da elkarrekiko lotura indartuz joan ahala, pilotariek elkarrekikotasunean gora egiten baitute, ni-tik, eta banaka jardutetik, gura, taldeko kide izatera, igaroz. Besteak beste, euren ordua izendatzen dute paletako saioari dagokiona.

Nik ez nekien bakoitza zein zen, nongoa zen, baina nik nabaritzen nuen lehenengo egunean eurek pixka bat elkar ezagutzen zutela kaletik eta horrela, baina zeudela denak distante-edo, eta gero, egia esanda, kristoren harremana lortu dugu. Nire ustez kristoren talde kohesioa egon da. Izan da beraientzako espazio bat, beraien ordua, beraien momentua eta bastante errespetatu dutena. Orduan, sozializazioa, ba, bai, kristorena, kristorena. Bai. (Haizea)

Pluralean bizi eta izendatzen dute harremanen nondik norakoa pilotari askok, behin elkarrengana hurbiltzeko lehen urratsak eman, konfiantzari tira egin eta elkarrekin saioetan izaniko bizipenen garapenean aurrera egin ahala. Horregatik, talde-izaera hori landu eta fruituak ematen joaten da denboraren poderioz, Haizeak goian aipatu bezala benetako talde-kohesioa eta sozializazioa lortuz. Harreman horietarako gakoetako bat da espazio eta denborak partekatu eta elkarrekin ongi pasatzea.

Elkartzeko gune dute paletako ikastaroa emakumeek, gainerako norbanakoen ezaugarriari arreta berezirik jarri gabe eta ezberdintasunei erreparatu gabe, aniztasuna errespetatuz eta onartuz. Lotzen dituenak du benetako indarra eta hori da axola duena, pilotako jarduerak eurak elkarrengana batzeko duen zeresana eta eragina. Horregatik, bertako partaide sentitzea bada elkartu eta paletan jokatzeko jarraitzeko arrazoibide nagusietako bat, honako aipu honetan azpimarratzen den moduan:

Ikusten duzu, azkenean elkartzen gara eta da aitzakia, niretzat inportantea da hor jarraitzea. Nik uste dut talde bat garela, lortu dugu taldea izatea, kopuru polita daukagu, gainera, zortzi bat eta, bai, talde bat daukagu. (Eli)

Taldekidetarako atxikimendu horrek babes loturak ere sortzen ditu, elkarren arimuan aritzearen goxotasuna eta gertutasuna ere bilatuz: *taldeak babestu egiten zaitu* (Gurutze).

Eli eta Gurutzek dioten ildo horretan, gainera, badirudi taldean aritzeko aukera hori izatea benetako indargunea dela pilotarietako jarduerarekiko erlazio eta irrika sendoa mantentzeko, hurbiltasun-keinuak ugari izaten direlako paleta-saioetan ere. Izan ere, emakumeek diote eurek pilotan jarraitu ala ez eragin dezaketela taldearekiko duten loturak eta erlazioen nondik norako eta ezaugarriak.

Bestalde, zenbait kasutan gertatu izan da ordutegi eta egoera pertsonaleko baldintzak aldatuta, paleta-ikastaroko ordutegia eta kideen multzoa aldatu beharra. Taldeaz aldatu arren, ordea, berriro ere lehengo ingurumaria itzultzeko aukera sortuz gero, lehengo kideengana itzultzeko gogoia begi-bistakoa izan ohi da, talde-izaeraz gozatzen jarraitu eta kide izatetik laguntasunera igarotako gainerako emakumeekin harremanak mantentzeko aldera:

Ni mantentzen naiz jendearengatik talde honetan, goizekoan. Arratsaldekoan hobe da gutxiago direlako eta gehiago ibiltzen zarelako, baina, beno, goizeko harremanengatik eta bai, goizekoa aukeratu dut. Egin nitzakeen biak, baina goizekoa aukeratu dut. (Ainara)

Talde-sentimenduaren presentzia, pisua eta indarra nabarmenak dira emakumeen aisialdiko pilota-saioetan eta horien testuinguruko baldintzetan, beraz. Talde-izaerak indar eta itzal handia du emakumezko pilotarien artean.

#### **4.2. Hiru hormetatik gaindi**

Talde-izaera garatu eta lantzeak, zenbait kasutan, berekin ekar dezake pilotako jardunaz kanpo ere emakumeek elkarrekin denbora eta espazioak partekatu nahi izatea eta horretarako aukerak sortzeko gogoia izatea. Gainera, modu horretan harremanak sakondu, sendotu eta harago eramateko abagunea izaten dute pilotarietako, talde-sentimendua elikatu eta indartuz. Pilotalekuek hiru edo lau hormak gainditzen ditu elkarbanatzearen gaiak, jarraian agertu bezala.

Pilotalekuek kanpo eta kantzako partida eta entrenamenduak albora utzita, hortik kanpoko jarduerari dagokienez, elkarbanatutako otorduak, egun-pasak

eta pilotalekutik at han-hemenka sorturiko planen antolaketa, kontakizun eta hitz aspertuak bat baino gehiago dira pilotan diharduten hainbat emakumeren kasuan.

Pilota munduan dagoen jendea, orokorrean, jatorra da eta beraiekin ondo pasatzen dut, «kutxipanda» ederrak egiten ditugu. Esan nahi dut, txapelketa egiten duzu, baina, gero bazkaria edo juerga batzuk, eta alde horretatik ondo dago. (Eider)

Pilota eta haren inguruabarrak izaten dituzte emakumezkoek elkarrenganako lehen urratsak emateko abiapuntu eta arrazoi. Hala eta guztiz ere, elkarrekiko loturak eta hartu-emanak ugaritu eta finkatzearen poderioz, paletatik kanporako lagun talde edo multzo bat osatzera iristen dira. Ildo horretan, pilotatik aparte elkarrekin batzeko aukera izan eta hautu hori egiteak eragin positiboa izaten du ondoren pilotako eremuan izango dituzten trukeetan ere.

Gainera, erlazioetan urrunago joanda, familia-izaera ere eman izan diote paletako lagunartearekin daukaten erlazio mota horri pilotariet. Izan ere, elkarrekin ordu, bidaiak eta bizipen ugari partekatu eta elkarrekiko gertutasuna lantzeak sentimenduetan ere eragiten du, izaera eta talde-sentimenduak barne-barnean txertatuz pilotari izaeraren baitan.

*Nolako harremana daukazu gainerako pilotarietkin? Ondo moldatzen al zarete?*

Bai, eta guztiekin, e. Beti egongo da bereziagoa den norbait, baina, normalean, bai. Beste familia bat da. (Nekane)

Pilotarien artean bizi duten giro eta gertutasunari «familia» adiera ematea esanguratsua eta azpimarragarria da. Izan ere, berez hitz hori oso hurbileko ahaideekiko lotura adierazteko erabiltzen da gure artean, gehienbat etxeakoak direnekiko harreman estuak eta hurbilekoak agertzeko. Horregatik, kirol-jardun batetik abiatu, euskal pilotaren esparrutik kasu honetan, eta hain harreman estu eta indartsuak garatzera iristea ez da erraza izaten. Horrek adierazten du benetan zein neurritaraino heltzen diren komunitatea eraikitzeke gogoa, beharra eta harekiko atxikimendua.

## 5. Eztabaida

Aurreko hainbat ikerkuntzak agertu bezala, emakumeek kirolean parte hartzeko harremanak nahitaezko faktore dira (Frake, 2008; Wellard, 2006). Kideen arteko harreman horiek gehienetan modu positiboan eragiten dute. Kirol tradizionaletan, besteak beste, herri-kirolean, emakumeek bertan jarduteko garrantzia du lagunarteak edo egiten den kirolaren talde-izaerak (Egibar eta Garai, 2009). Horregatik, testuingurua eroso, lagunkoia eta sozializazio positiboa lortzeko modukoa izatearen garrantzia ez da nolana hikoia (Frake, 2008). Theberge (1995) ere generoa, kirola eta elkarrekikotasuna eraikitzearen gaineko ikerlan batean, izotz hockeyan, taldearen garrantzia nabarmen azpimarratu du. Halaber, harreman-sareek garrantzia handia dute jarduera fisikoko programetan parte hartzen dutenen artean (Bidonde, Goodwin eta Drinkwater, 2009). Sare horiek ongizatea dakartela azpimarratu da, kideetako bakoitzari babesa eskainiz. Rosterrek (2007) ere nabarmen azpimarratu du jende berria ezagutu eta harreman-sareak sortzeak duen onura,



emakumeak ahalduntzeko ere tresna baliagarria dela adieraziz. Aztergai berarekin segituz, errugbilarien artean elkarrekintza hori azpimarratu dute jarduteko arrazoiz bezala (Fields eta Comstock, 2008), zeren jokoaren alderdi sozialak baloratzen baitituzte emakumeek jokoan zeharreko gozamenaz eta beste zenbait alderdiz gain. Ildo berean, Eyley eta lankideek (2002) erlazio-sareen garrantzia nabarmendu dute, taldean dibertsioa lortzea aipatuz. Jardueran zehar elkarri babesa emateak, bide batez, jarduera-programetan jarraitzea erraz dezake, baita atxikimendua lortzea ere, zeren gozamen-mailak gora egitea ahalbidetzen baitu jarrera horrek.

Loturak estuagotu eta talde-sentimenduaren garapenari dagokionez, kirol-jardueran zein hortik kanpo elkarrekin eginiko bidaia, emaniko ordu eta lorturiko tratua inguruan, Walseth (2008) azpimarratu du kirol-esparruko hainbat gaitan antzekotasunak partekatzeak dakarren ondorioa, eta ohikoa dela norberaren antzeko jendearekin halako harremana lortzea, eta loturen sendotasunak gora egiten duela erlazioek gora egin ahala. Gainera, elkarrengana biltzea bera da azpimarratzeko nagusiki. Bidonde, Goodwin eta Drinkwaterrek (2009) aipatzen dituzte modu honetako elkarrekintzak eta haien onurak, saioetatik kanpo ere elkartzea, kideekiko kezka eta ardura adieraziz. Kantxatik kanpoko jardun eta harremanaren gaineko aipuak beste hainbat autoreren lanetan ere hizpide dira (Brown eta Macdonald, 2008; Fields eta Comstock, 2008; Martín, 2012; Pietilä, 2009; Rhind eta Jowett, 2010; Roura, 1999; Walseth, 2008).

Fields eta Comstockek (2008) emakumezkoen errugbian kideen artean sortzen duten batasun-lotura azpimarratu dute, taldea eta bertako komunitatea lagunez osaturiko «familia» gisa aurkeztuz jokalarien euren hitzetan ere, hainbat pilotarik adieraziriko gertutasunaren espirituarekin bat eginez.

## 6. Ondorioak

Ikerlan honetan jorraturiko informazioa aintzat hartuta ondoriozta genezake emakume pilotarien errealtatean indargune direla hartu-emanak. Izan ere, behin eta berriz agertu da pilotarientzat oso garrantzitsuak direla harreman sozialak. Pilotalekuean, saioz saio eta egunez egun hasi eta, kasu askotan, bertatik kanpo gorpuzten eta finkatzen diren elkarrekiko trukeek esanahi eta eragin handia dute pilotarientzat. Beste lagun talde bat osatzera hel daitezke pilota-munduan, jarduera horrekin erlazonaturiko ekintzetan elkarrengana jotzeko aukera sortuz, eta baita eurek berriak sortzeko ere. Laguntasun horren fruitua da eraikitzen duten komunitatea eta talde-sentimendua. Gainerakoekin partekatzea, elkarri eragitea eta beste emakume batzuekin erlazioa izatea ezinbestekoa da pilotarietako talde-sentimendu eta -izaera sakonak izan ditzaten. Parte-hartze eta hartu-eman horiei esker jokalariek talde-ikuspegia garatu dute, euren buruez aparte ingurukoei lagundu eta haiekin sintonian izateko bideak bilatuz, interesak eta ongi sentitzea taldeko beste kideengana ere hedatuz, denek norabide berean arraun egiteko nahiari tiraka. Hori dela-eta, funtsezkoa iruditzen zaigu «gure taldea» eta «gure ordua» gisako bizipen eta kontzeptuak azpimarratzea, paleta-saioak eta pilotalekueko harremanak euren jabetzako bihurtuko balituzte legez. Eskuraturiko elkarrekiko gertutasun horrek konfiantza-mailan dakartzan igoera eta lasaitasun-sentipena

ere nabarmenak dira, eta horrek segurtasuna eta babesa ere bermatzen dizkie komunitateko kide direnei. Horregatik, zenbaitetan gu hori niaren gainetik jarri ohi dute, talde-izaerari lehentasuna emanez.

Talde-sentimenduak indar eta garrantzi handia du, horrez gain, emakume pilotarien jardueraren eta jardun-ildoen muinean ere aurkitzen baita. Askorentzat euren kirol-jardueraren sostengu nagusia da. Taldekideekiko harremanek eta horren izaerak baldintza dezakete pilotan hastea, jarraitzea eta/edo uztea, gozamenean ere zuzeneko eragina izaten baitute. Izan ere, atxikimendua lortzeko arrazoi nagusietako bat da eta horrek zuzenean eragiten du kirol-jardueran, baita, agian, bizitzako beste hainbat alorretan egiten diren jardueretan ere.

Hartu-emanen pisua eta garrantzia aintzat hartuta, beraz, ikerlan honetako aurkikuntzak paleta-saioretara egokitzeko lanari ekitea garrantzitsua da, bai eskaintzaren egituraketan bai eta aisialdiko ikastaroetako jardueren ezaugarrietan ere. Pilotarien behar eta nahiei erantzutea funtsezkoa da eskaintza eta eskaria bat etortzeaz gain jarduera batek arrakasta izan eta biziraupen luzeagoa izan dezan. Arrakastaren formularen eragin dezake alderdi horrek. Horregatik, besteak beste, honako bi ezarpen praktikoa hauek garrantzitsuak izan litezke:

- Pilotako jarduerak eta saioetako ariketak errendimendura eta teknika-taktika hutsera bideratu ordez, harremanen alderdian sakontzera bideratzea. «Txokotan»<sup>1</sup> erako jolasak indartu eta baliatu, taldekideen artean loturak sustatu eta indartuz, elkarrekiko trukeak erdigunean jarrita. Talde-giroa lantzeko oso aproposak dira egitura horretako ariketak.
- Saioren kanpoko ekintzetan batera aritzeko eskaintza ere egin emakume pilotariei ikastaroen barruan, talde-izaera sustatu eta komunitatea indartu eta babesteko. Adibidez, ikasturtean behin otordu eta festa bat antolatzea garrantzizkoa litzateke, elkargunea handitu, sareak zabaldu eta komunitatea sendotzeko, elkar hobeto ezagutzeko ere atea irekitzeaz gain.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Adler, P. A. eta Adler, P. (1994): «Observation techniques», in N. Denzin eta I. Lincoln (arg.), *Handbook of Qualitative Research*, Sage, Thousand Oaks, 377-392.
- Bidonde, M. J.; Goodwin, D. L. eta Drinkwater, D. T. (2009): «Older Women's Experiences of a Fitness Program: The Importance of Social Networks», *Journal of Applied Sport Psychology*, **21**(1), 86-101.
- Brown, S. eta Macdonald, D. (2008): «Masculinities in Physical Recreation: the (re)production of masculinist discourses in vocational education», *Sport, Education and Society*, **13**(1), 19-37.

---

1. «Barru», «Kaleketan», «Kaleazka» eta beste hainbat izenez ezaguna den oroimen gabeko jokoa. Denek denek aurka jokatzen duten joko horretan txarra egiten duena kaleratua izan ohi da eta kantxan geratzen den azken jokalaria irabazle suertatu ohi da, gehienetan «bizitza» bat irabaziz. Baina irabazteak ez du garrantzirik, norgehiagoka-egitura izan arren, jolas-izaera hartzen du, irabazlea zein den jakin orduko jokoa berriro hasi ohi baita.

- Dey, I. (1993): *Qualitative data analysis: A user-friendly guide for social scientists*, Routledge, Londres.
- Egibar, M.; Etxeberria, J. C.; Gutierrez, I.; Mendizabal, M.; Usabiaga, O. eta Zubiaur, H. (2007): *Eskupilotaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesua*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Egibar, M. eta Garai, B. (2009): «Emakume sokatiratzailleekin elkarrizketan: kirol-sozializazioa», in O. Usabiaga, J. Castellano eta J. Etxebeste (arg.), *Innovar en la Actividad Física y el Deporte*, <www.gidekit.com>, Vitoria-Gasteiz, 385-402.
- Etxebeste, J. (2012). *Á Cloche-Pied. Les Jeux Sportifs Traditionnels et la socialisation des Enfants Basques*, Editions Universitaires Européennes, Sarrebruck.
- Eyler, A. E.; Wilcox, S.; Matson-Koffman, D.; Evenson, K. R.; Sanderson, B.; Thompson, J. eta Rohm-Young, D. (2002): «Correlates of physical activity among women from diverse racial/ethnic groups», *Journal of Women's Health and Gender-Based Medicine*, **11**(3), 239-253.
- Fernandez-Lasa, U. (2011): *Emakumearen parte hartzea euskal pilotan: gaur egungo arrazoiak aztergai*, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Unibertsitate Masterra, publikatu gabeko Master Amaierako Lana, Vitoria-Gasteiz.
- Fernandez-Lasa, U. eta Usabiaga, O. (2012): «Emakumea pilotan: kultura eta antolaketaren eraginak Gipuzkoan», in I. Martínez de Aldama, R. Cayero eta J. Calleja (arg.), *Investigación e innovación en el deporte*, Paidotribo, Bartzelona, 88-94.
- Fernandez-Lasa, U.; Usabiaga, O. eta Castellano, J. (2013): «Gu ere bagara: emakumeak eta pilota», in J. Aldaz, A. Dorado, P. J. Jiménez eta A. Vilanova (arg.), *Libro de Actas del XII Congreso AEISAD. Responsabilidad Social, Ética y Deporte*, Ibersaf Industrial, Madril, 111-119.
- Fields, S. K. eta Comstock, R. D. (2008): «Why American Women Play Rugby», *Women in Sport and Physical Activity Journal*, **17**(2), 8-16.
- Frake, M. (2008): «The Development of Relationships in Sport: A Hand-in-Hand Experience», *Women in Sport and Physical Activity Journal*, **17**(1), 47-53.
- Friese, S. (2012): *Qualitative Data Analysis with ATLAS.ti*, SAGE Publications Ltd., Londres.
- GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA (2005a): *Euskal pilotan jarduteko oinarritzko aholkuak*, SS-1355/05, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, Donostia.
- , (2005b): *Eskupilotaren irakaskuntza prozesua*, SS-1356/05, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, Donostia.
- González, O. (2005): *Pelota vasca: un ritual, una estética*, Muelle de Uribitarte Editores, Bilbo.
- González-Suárez, A. M. (2007): *Medidas de promoción de la actividad deportiva de las chicas en el deporte escolar*, Diputación Foral de Bizkaia, Departamento de Cultura, Bilbao.
- Guasch, O. (1997): *Cuadernos Metodológicos nº20. Observación participante*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril.
- Gutierrez, I. (2005): *Eskupilotaren prestakuntza fisikoa*, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa, Donostia.
- Hammersley, M. eta Atkinson, P. (2007): *Etnografía. Métodos de investigación*, Paidós Ibérica, Bartzelona.
- Hellison, D. (2011): *Teaching responsibility through physical activity*, Human Kinetics, Champaign-Illinois.
- Kinsel, B. (2005): «Resilience as adaptation in older women», *Journal of Women and Aging*, **17**(3), 23-39.
- Krane, V. eta Baird, S. M. (2005): «Using Ethnography in Applied Sport Psychology», *Journal of Applied Sport Psychology*, **17**(2), 87-107.
- Kvale, S. (2007): *Doing Interviews*, Sage, Londres.

- Lim, S. Y.; Warner, S.; Dixon, M. A.; Berg, B.; Kim, C., eta Newhouse-Bailey, M. (2011): «Sport Participation Across National Contexts: A Multilevel Investigation of Individual and Systemic Influences on Adult Sport Participation», *European Sport Management Quarterly*, **11**(3), 197-224.
- Lincoln, Y. S. eta Guba, E. (1985): *Naturalistic enquiry*, Sage, Beverly Hills.
- Martos-García, D.; Devis-Devis, J. eta Sparkes, A. (2009): «Sport and physical activity in a high security Spanish prison: an ethnographic study of multiple meanings», *Sport, Education and Society*, **14**(1), 77-96.
- Migliaccio, T. A. eta Berg, E. C. (2007): «Women's Participation in Tackle Football. An Exploration of Benefits and Constraints», *International Review for the Sociology of Sport*, **42**(3), 271-287.
- Navarro, J. A. (2007): «Críticas y apoyos hacia la responsabilidad social de la empresa: una aproximación etnográfica desde la vivencia del trabajador y una propuesta metodológica cualitativa», *Universitas Psychologica Bogotá*, **6**(1), 59-68.
- Usabiaga, O. (2006): «Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa: errendimendua eta sustapena uztartzen dituen eredu», *Ikastaria*, **15**, 143-151.
- Patton, M. (1990): *Qualitative evaluation and research methods*, Sage, Thousand Oaks.
- Pietilä, P. (2009): «A Space of Our Own. Non-Formal Education for Elder Women in Andalusia», *The European Journal of Women's Studies*, **16**(1), 53-66.
- Ramírez, W.; Vinaccia, S. eta Suárez, G. R. (2004): «El impacto de la actividad física y el deporte sobre la salud, la cognición, la socialización y el rendimiento académico: una revisión teórica», *Revista de Estudios Sociales*, **18**, 67-75.
- Rhind, D. J. A. eta Jowett, S. (2010): «Relationship Maintenance Strategies in the Coach-Athlete Relationship: The Development of the COMPASS Model», *Journal of Applied Sport Psychology*, **22**(1), 106-121.
- Roster, C. A. (2007): «“Girl Power” and Participation in Macho Recreation: The Case of Female Harley Riders», *Leisure Sciences: An Interdisciplinary Journal*, **29**, 443-461.
- Roura, G. (1999): «Un programa de actividad física para mujeres adultas», *Apunts. Educación Física y Deportes*, **57**, 100-104.
- Sparkes, A. eta Partington, S. (2003): «Narrative practice and its potential contribution to sport psychology: the example of flow», *The Sport Psychologist*, **17**(3), 292-317.
- Taylor, S. J. eta Bogdan, R. (2000): *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*, Paidós, Barcelona.
- Theberge, N. (1995): «Gender, Sport, and the Construction of Community: A Case Study from Women's Ice Hockey», *Sociology of Sport Journal*, **12**(4), 389-402.
- Walseth, K. (2008): «Bridging and bonding social capital in sport-experiences of young women with an immigrant background», *Sport, Education and Society*, **13**(1), 1-17.
- Wellard, I. (2006): «Able bodies and sport participation: social constructions of physical ability for gendered and sexually identified bodies», *Sport, Education and Society*, **11**(2), 105-119.
- Wolcott, H. F. (1973): *The man in the Principal's Office: An Ethnography*, Holt, Rinehart and Winston, New York.
- Woods, P. (1989): *La escuela por dentro. La etnografía en la investigación educativa*, Paidós-MEC, Barcelona.